

Jardueren Txostena

Memoria de actividades

2021



BILBOKO PORTUA ETA ITSASADARRA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN PUERTO Y RÍA DE BILBAO



Jardueren Txostena

Memoria de actividades

2021

Argitaratzailea: **Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa**
Edita: **Fundación Puerto y Ría de Bilbao**

Bulego nagusiak. Hedapeneko kaia
Oficinas generales. Muelle Ampliación
48980 - Santurtzi (Bizkaia)

Tel: + 34 94 487 12 31
fundacion@bilbaoport.eus
www.fundazioa.bilbaoport.eus



01	Fundazioaren eraketa	Constitución de la Fundación	06 PÁG. / OR.
02	Fundazioaren helburuak	Fines fundacionales	07 PÁG. / OR.
03	Fundazioaren funtzionamendua	Funcionamiento de la Fundación	08 PÁG. / OR.
04	Patrono fundatzaileen zerrenda	Relación de patronos fundadores	09 PÁG. / OR.
05	Ohorezko enpresa laguntzaileen zerrenda	Relación de empresas colaboradoras de honor	10 PÁG. / OR.
06	Enpresa laguntzaile numerarioen zerrenda	Relación de empresas colaboradoras de número	11 PÁG. / OR.
07	2021eko ekitaldiko jarduera-plana	Plan de actuación del ejercicio 2021	14 PÁG. / OR.
08	2021. urteko Jarduera-planaren likidazioa	Liquidación del Plan de actuación del año 2021	15 PÁG. / OR.
09	2021eko Jarduera Programa	Programa de actuación 2021	19 PÁG. / OR.

10	Zeharkako jarduerak	Actuaciones transversales	20 PÁG. / OR.
	KAI-JAI		20
	Enpresan praktikak egiteko programa Programa de prácticas en empresa		21

11	Ibaiertzeko udalerrri bakoitzean egindako jarduerak	Actividades realizadas en cada municipio ribereño	24 PÁG. / OR.
	Ayto. Barakaldo Udala		24
	Ayto. Bilbao Udala		25
	Ayto. Erandio Udala		26
	Ayto. Getxo Udala		28
	Ayto. Portugalete Udala		29
	Ayto. Santurtzi Udala		31
	Ayto. Sestao Udala		32
	Ayto. Zierbena Udala		33

12	Berrikuntzarekin zerikusia duten jarduerak	Proyectos con otras entidades	34 PÁG. / OR.
	Jasangarritasuna Cámarabilbao Sostenibilidad Cámarabilbao		34
	Deusto Cities Lab Katedra Deusto Cities Lab Katedra		35
	Bilbao PortLab		36

01 Fundazioaren eraketa

Estatutuek xedatzen dutenez, Fundación Puerto y Ría de Bilbao - Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, nortasun juridikoa eta ondare propioa duena eta Erakunde fundatzaileekin loturarik gabekoa. Erabateko gaitasuna du bere helburuak betetzeko.

2011ko apirilaren 1ean emandako eskritura publikoaren bidez eratu zen legez, eta EAEko Fundazioen Erregistroan 2011ko uztailaren 27an inskribatu zen. Aplikatu behar zaizkion lege-xedapenek eraenduta dago, bereziki EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta EAEko Babesletzaren eta Fundazioen Erregistroen Erregelamenduak onetsi dituzten ekainaren 19ko 100/2007 eta 101/2007 Dekretuek gobernatuta. Kultura, gazte eta kirol fundazioei dagokien 3. atalean dago inskribatuta Fundazioen Erregistroan.

Euskal Autonomi Erkidegoaren eremuan egiten ditu bere jarduerak, eta Patronatuko hamar kidek, Bilboko Portuko Agintaritzak eta Nerbioiko Ibaiertzeko bederatzi udalek (Barakaldo, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Zierbena) eratuta dago. Patronatuko kideek hasieran 100.000 euroko ondare-ekarpena egin zuten; kopuru horren %49a Bilboko Portuko Agintaritzak jarri zuen, eta gainerakoa, berriz, ibaiertzeko bederatzi udalerriek, zeinek bere proportzioan.

Constitución de la Fundación

Tal y como disponen sus Estatutos, la Fundación Puerto y Ría de Bilbao - Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa es una fundación sin ánimo de lucro, que goza de personalidad jurídica y patrimonio propio e independiente de los Organismos e Instituciones fundadoras, y tiene plena capacidad para el cumplimiento de sus fines.

Fue legalmente constituida mediante escritura pública otorgada en fecha 1 de abril de 2011 e inscrita en el Registro de Fundaciones del País Vasco el 27 de julio de 2011, rigiéndose por las disposiciones legales que le son de aplicación, en particular por la Ley 09/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y por los Decretos 100/2007 y 101/2007, del 19 de junio, por los que se aprueban los Reglamentos del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco. Su inscripción en el Registro de Fundaciones se incluye en la Sección 3, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas.

La Fundación desarrolla sus actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco y fue constituida por diez patronos, la Autoridad Portuaria de Bilbao y los nueve Ayuntamientos de los municipios ribereños de la Ría del Nervión (Barakaldo, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao y Zierbena), con una dotación patrimonial inicial satisfecha por los Patronos de 100.000 euros, cantidad aportada en un 49% por la Autoridad Portuaria de Bilbao y el resto proporcionalmente por los nueve municipios ribereños.

02 Fundazioaren helburuak

Fundazioaren helburua da gizarte-kulturaren eta aisialdiaren arloan proiektzio handia duten interes orokorreko planak eta jarduketak sustatzea eta garatzea. Horri esker, hobeto ezagutuko da Bilboko Portuak hiribilduaren garapen ekonomikoan, sozialean eta kulturalean duen eta historian izan duen garrantzia, eta Nerbioiko Ibaiertzeko udalerriak bateratzeko modua emango du. Era berean, portuko sektorearen berrikuntzarekin lotutako egitasmoak zein ekimenak sustatzea eta garatzea du xede.

Helburu zabalak baita, honako jarduerak burutuko ditu, besteak beste:

- Bilboko Portuak ibaiertzeko udalerrietan izan duen legatu historikoa, kulturala eta ekonomikoa ikeretzea, zaintzea eta ezagutaraztea, betiere gaiaren inguruko prestakuntza, lanak eta jarduketak sustatuz, zuzenean edo beste ekimen pribatu edo publiko batzuekin batera, edo beste eremu batzuetako erakundeekin lankidetzak programak gauzatu.
- Portuko sektorearen berrikuntza, teknologia hobekuntza eta lehiakortasunean aurrera egiten lagungarri izan daitezkeen proiektuak, ekintzak, ikerketak, ekimenak edo ikerketak sustatzea, laguntzea edota garatzea, adierazitako Fundazioaren helburuak betetzeko diru-laguntzak, sorospenak edo finantza-laguntzak ematea ere barne dagoela.
- Lankidetzak-hitzarmenak eta jarduerak babestea gizarte, kultura edo kirol arloetan.
- Portu-sektorearen inguruko Biltzarrak eta Jardunaldi teknikoak, Mintegiak, sektore-topaketak eta prestakuntza-ikastaroak antolatzea.
- Portuko eremuaren barruko prestakuntzarako laguntzak eta beka ematea eta argitalpenak egitea.
- Fundazioaren helburuak betetzera bideraturiko bestelako edozein jarduketa.

Fines fundacionales

La Fundación tiene por objeto promover y desarrollar planes y actuaciones de interés general, con una amplia proyección sociocultural y recreativa, que permita un mejor conocimiento de la relevancia presente e histórica del Puerto de Bilbao en el desarrollo económico, social y cultural de la Villa, así como la integración de los municipios ribereños de la Ría del Nervión, y el fomento y desarrollo de proyectos e iniciativas vinculadas a la innovación en el sector portuario.

Dentro de estos amplios objetivos desarrollará, entre otras, las siguientes actividades:

- Investigación, conservación y difusión del legado histórico, cultural y económico del Puerto de Bilbao en los municipios ribereños, fomentando la realización de labores formativas, trabajos y actuaciones sobre la materia, directamente o en colaboración con otras iniciativas públicas o privadas, o en programas de colaboración con entidades y organismos de otros ámbitos.
- Promoción, fomento y/o desarrollo de proyectos, actividades, estudios, iniciativas o investigaciones que permitan avanzar en la innovación, en la mejora tecnológica y en la competitividad del sector portuario, incluyendo el otorgamiento de subvenciones, asistencias o ayudas financieras para la realización de dichos fines fundacionales.
- Convenios de colaboración y patrocinio de actividades en los ámbitos sociales, culturales o deportivos.
- Organización de Congresos y Jornadas técnicas, Seminarios, encuentros sectoriales y cursos de formación dentro de los sectores portuarios.
- Publicaciones, concesión de becas y ayudas para formación dentro del ámbito portuario.
- Cualesquiera otras actuaciones orientadas a la consecución de los fines fundacionales.

03 Fundazioaren funtzionamendua

Fundazioaren funtzionamendu-gastuak Bilbao PortLab jardueraren pertsonal-gastuetara mugatzen dira batik bat. Jarduera horren helburua da berrikuntza sustatzea eta ideia berriak sor-tzea Bilboko Portua bezalako benetako proba-ingurunean prototipoak probatu eta garatzeko, Portuko enpresen arteko harremanak errazteko, proiektuak garatzeko espazioa eskaintzeko eta ekintzaileei laguntzeko.

Aurreko ekitaldian koordinatzaile bakarra zuen Bilbao PortLab-eko plantillak, eta ekitaldi honetan pertsona laguntzaile bat gehitu da, zentro horrek berrikuntzarako dituen ekintzak areagotu izanak sortutako zereginak egoki betetzeko.

Fundazioak ia ez du gastu orokorrik, zeren eta Bilboko Portuko Agintaritzak ez baitu ezer kobratzen beharrezko lanak egiteko materialagatik, egoitza uzteagatik eta pertsonal propioa jartzeagatik.

Funcionamiento de la Fundación

Los gastos de funcionamiento de la Fundación se limitan prácticamente a los gastos de personal de la actividad Bilbao PortLab, que tiene como objetivo fomentar la innovación y la creación de nuevas ideas en un entorno de pruebas real como es el Puerto de Bilbao para testar y desarrollar prototipos, facilitar contactos entre empresas del Puerto, aportar un espacio para desarrollar los proyectos y apoyar a los emprendedores.

En este ejercicio la plantilla de Bilbao PortLab, que en el ejercicio 2020 sólo contaba con una Coordinadora, se ha visto incrementada con la incorporación de una persona de apoyo para poder desempeñar adecuadamente las tareas derivadas del incremento en las acciones de este centro para la innovación.

Los gastos generales de la Fundación son prácticamente nulos o inexistentes, dada la colaboración desinteresada de la Autoridad Portuaria de Bilbao en cuanto a material, sede y personal propio, para la realización de cuantas tareas fueran precisas.



04 Patrono fundatzaileen zerrenda

Relación de patronos fundadores



05 Ohorezko enpresa laguntzaileen zerrenda

Relación de empresas colaboradoras de honor



06

Enpresa laguntzaile numerarioen zerrenda

Relación de empresas colaboradoras de número



TOROYBETOLAZA

CSP Iberian Bilbao Terminal S.L.



**PUENTE
BIZKAIA**





TRANSPORTES CON GRÚA BLANCO S.L.



07 2021eko ekitaldiko jarduera-plana

2013. urtean, Fundazioaren Patronatuak hainbat erakunde, enpresa eta sozietate gonbidatu zituen Fundazioari laguntzeko, Estatutuetan xedaturikoaren babesean eta Fundazioaren helburuak betetzeko xedearekin, bai interes komunak helburu orokor horiek garatzeko duen garrantzia aintzat hartuta. Fundazioan sartzea onetsi ondoren, 2014. urtetik aurrera hasi ziren kolaboratzen.

Gauzak horrela, 2021eko ekitaldiari begira, Fundazioak 403.000 euroko diru-sarrerak izan zituen Patronatuak onartutako jarduerak garatzeko. Diru-sarrera horiek, jatorria zein den, honela bana daitezke:

- 331.000 euro Portuko Agintaritzaren urteko ekarpenari zegozkion.

- 72.000 euro enpresa Laguntzaileen (24) ekarpeni zegozkien, ohorezko enpresek (8) 5.000 euroko ekarpena eginda eta kide numerarioak diren enpresek (16), berriz, 2.000 eurokoa.

Plan de actuación del ejercicio 2021

En el año 2013, el Patronato de la Fundación, al amparo de lo dispuesto en los Estatutos y al objeto de cumplir con los fines fundacionales, considerando además la relevancia de un interés común en el desarrollo de dichos fines generales, invitó a colaborar con la Fundación a diversas instituciones, organizaciones, empresas y sociedades, quienes, una vez aprobada su incorporación a la Fundación, hicieron efectiva su colaboración a partir del año 2014.

De este modo, la Fundación dispuso finalmente para el ejercicio 2021 de unos ingresos de 403.000 euros para el desarrollo de las actividades aprobadas por el Patronato, con la siguiente distribución en atención a sus procedencias:

- 331.000 euros provinieron de la aportación anual de la Autoridad Portuaria.

- 72.000 euros de las aportaciones de las empresas Colaboradoras (24), tanto de honor (8), con aportaciones de 5.000 euros, como de número (16), con aportaciones de 2.000 euros.

08 2021. urteko Jarduera-planaren likidazioa

2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak helburu bi ditu: funtsen xedea egiaztatzea eta Patronoek proposatutako jarduerak benetan gauzatu izana justifikatzea.

Patronatuak 2020ko abenduaren 21ean egindako bileran, hasiera batean, 421.000 euroko diru-sarrerak aurreikusi zituen 2021eko ekitaldirako, Bilboko Portuko Agintaritzak eta Fundazioaren enpresa Laguntzaileek finantzatu beharrekoak. Diru-sarrera horiek 403.000 eurokoak izan dira ekitaldiaren amaieran, hau da, hasieran aurreikusitakoak baino 18.000 euro gutxiago. Izan ere, enpresa laguntzaileen ekitaldiko diru-sarrera erreala aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da.

Hala, IBAIERTZEKO UDALERRIETAN EGITEN DIRREN FUNDAZIO-JARDUERAK 89.100 euroko zenbatekoa izan dute guztira 2021eko ekitaldian; beraz, 9.900 euro jarri dira udalerrri horietako bakoitzean egin beharreko jardueretarako, Bilboko Portuko Agintaritzak urtero egiten duen ekarpenaren bidez diruz lagunduta. Partida honetako azkeneko gastua 78.300 eurokoa izan da 2021ean. Izan ere, Sestaoko Udalak 9.000 euroko diru-laguntza bakarrik eskatu du eta Leioako Udalak uko egin dio "Leioa Itsasadarretik" izeneko proiektua gauzatzeko dagokion diru-laguntzari.

Bilboko Portuko Agintaritzak egindako 331.000 euroko urteko ekarpenaren gainerako diru-sarrerak, hau da, 252.700 euro, eta enpresa laguntzaileek egindako ekarpenetatik eskuratutako 72.000 euro, honako hauek finantzatzeko erabili dira: ENPRESAN PRAKTIKAK EGITEKO PROGRAMA, 2021. urtean 60.693,84 euroko zenbatekoa izan du; KAI JAI - BILBOKO PORTUAREN EGUNA zeharkako jarduera, urriaren 24an Getxoko 'Olatua' gurutzaldi-terminalean izan zen eta 58.685 euroko kostua izan zuen; eta BILBAO PORTLAB jarduera, berrikuntza-ekosistema bat garatzeko eta enpresei portu arinago, adimentsuago eta jasangarriagorako trantsizioa errazteko Fundazioak garatutako ekimena, 186.554 eurokoa


Liquidación del Plan de actuación del año 2021

La liquidación del presupuesto del ejercicio 2021 tiene la doble función de verificar el destino de los fondos y de justificar la efectiva materialización de las actividades propuestas por los Patronos.

Los ingresos presupuestados inicialmente para el ejercicio 2021 en la reunión del Patronato celebrada el 21 de diciembre de 2020 fueron de 421.000 euros, a financiar por la Autoridad Portuaria de Bilbao y las empresas Colaboradoras de la Fundación. Dichos ingresos han ascendido al cierre del ejercicio a la cantidad de 403.000 euros, 18.000 euros menos que los inicialmente previstos, dado que se ha obtenido de las empresas colaboradoras un ingreso real menor del estimado para el ejercicio.

Así, las ACTIVIDADES FUNDACIONALES EN LOS DISTINTOS MUNICIPIOS RIBEREÑOS han contado en el ejercicio 2021 un importe de total de 89.100 euros, por lo que se ha dispuesto de un total de 9.900 euros para las actividades a desarrollar en cada uno de estos municipios, subvencionadas a través de la aportación anual realizada por la Autoridad Portuaria de Bilbao. El gasto final en esta partida en 2021 ha ascendido a la cantidad de 78.300 euros debido a que el Ayuntamiento de Sestao ha solicitado únicamente una subvención de 9.000 euros y a que el Ayuntamiento de Leioa ha renunciado a la subvención concedida en relación con el Proyecto denominado "Leioa Itsasadarretik".

El resto de ingresos de la aportación anual de 331.000 euros realizada por la Autoridad Portuaria de Bilbao, es decir, 252.700 euros, así como los 72.000 euros de las aportaciones realizadas por las distintas empresas colaboradoras, se han destinado a la financiación del PROGRAMA DE PRÁCTICAS EN LA EMPRESA, cuyo importe en el año 2021 ha sido de 60.693,84 euros; de la actividad transversal KAI JAI - DÍA DEL PUERTO DE BILBAO -, que tuvo lugar el 24 de octubre en la terminal de cruceros 'Olatua' de Getxo con un coste final de 58.685 euros; y de la actividad BILBAO PORTLAB, la iniciativa de la Fundación para desarrollar un ecosistema de innovación y facilitar la transición de las empresas hacia un puerto más ágil, inteligente y sostenible, por un importe de 186.554 euros.


 2021eko sarrerak Ingresos 2021	Aurrekontua Presupuesto	Benetakoak Reales	Desbideratzea Desviación
Errepikatuak/ohiko jarduerak Actividades recurrentes/habituales	219.000	201.000	(-18.000)
Bilboko Portuko Agintaritza Autoridad Portuaria de Bilbao	129.000	129.000	0
Laguntzaileak Colaboradores	90.000	72.000	(-18.000)
Jarduera berria (Bilbao PortLab) Nueva actividad (Bilbao PortLab)	202.000	202.000	0
Bilboko Portuko Agintaritza Autoridad Portuaria de Bilbao	202.000	202.000	0
Diru-sarrerak guztira Total ingresos	421.000	403.000	(-18.000)

Diruz lagundutako fundazio-jarduera guztiak eta dagokien aurrekontu-zuzkidura, baita zeharkako jarduerak egitea ere, bat datoz Patronatuak 2020ko abenduaren 21ean egindako bileran zehaztutakoarekin.

🚩 **Diru-sarrerak:** Diru-sarreretan 18.000 euroko defizita izan da, laguntzaileen diru-sarrera erreala ez baita hasierako aurreikuspenetara iritsi.

Todas las actividades fundacionales objeto de subvención y su correspondiente dotación presupuestaria, así como la realización de las actividades transversales, se corresponden con lo detallado en la reunión del Patronato de fecha 21 de diciembre de 2020.

🚩 **Ingresos:** Se ha producido un déficit en los ingresos de 18.000 euros, debido a que el ingreso real de los colaboradores no ha alcanzado las expectativas iniciales.

 2021ko gastuak Gastos 2021	Aurrekontua Presupuesto	Benetakoak Reales	Desbideratzea Desviación
Errepikatuak/ohiko jarduerak Actividades recurrentes/habituales	219.000	200.009	(-18.991)
Jardueren gauzatzea 2021 Ejecución actuaciones 2021			
Ibaiertzeko udalerrietako jarduerak Actividades municipios ribereños	89.100	78.300	(-10.800)
Bekak eta Praktikak BPAñ Becas y Prácticas en la APB	67.900	60.694	(-7.206)
KAI JAI Zeharkako Jarduera Actividad Transversal KAI JAI	60.000	58.685	(-1.315)
Jardueraren beste gastu batzuk Otros gastos de la actividad	2.000	2.330	330
Jarduera berria (Bilbao PortLab) Nueva actividad (Bilbao PortLab)	202.000	186.554	(-15.446)
Kudeaketa gastuak Gastos de gestión	102.000	139.744	37.744
Ikerketa eta Prestakuntza-hitzarmenak Acuerdos de Investigación y Formación	100.000	46.780	(-53.220)
Gastuak guztira Total gastos	421.000	386.563	(-34.437)
Desbiderapena guztira Total desviación			16.437

▀ **Gastuak:** Gastuetan 34.437 euroko superabita izan da, batez ere Bilbao PortLab jardueraren gastuak aurrekontuan jasotakoak baino txikiagoak izan direlako, eta praktika-beketarako eta Kai Jairako aurreikusitako gastu osoa ez delako gauzatu. Horrez gain, Leioako Udalak itsasertzeko udalerrri horretan aurreikusitako jarduera bertan behera utzi zuen, eta Sestaoko Udalak 9.000 euro eskatu zituen udalerrri horretan jarduerak egiteko aurrekontuan jasotako 9.900 euroetatik.

Beste gastu batzuk, 2.330 eurokoak 2021eko ekitaldirako, hauek izan dira: FUNKO - Euskal Fundazioen Konfederazioaren urteko kuota eta 2021 Ekitaldiko Urteko Kontuen ikuskapena egitea.

▀ **Desbideraketa guztira (emaitza):** Arestian aipatutako guztiak 16.437 euroko desbideratzea ekarri du aurrekontuan, eta zenbateko hori 2021. ekitaldiko soberakina izan da.

▀ **Gastos:** Se ha producido un superávit en los gastos de 34.437 euros, principalmente debido a que los gastos incurridos en la actividad Bilbao PortLab han sido menores de los presupuestados, así como a la no ejecución del total del gasto presupuestado para las actividades becas de prácticas y Kai Jai. Adicionalmente, el Ayuntamiento de Leioa canceló la actividad prevista en dicho municipio ribereño y el Ayuntamiento de Sestao solicitó 9.000 euros de los 9.900 euros presupuestados para actividades en esta localidad.

Los otros gastos, por importe de 2.330 euros para el ejercicio 2021, han sido: cuota anual de FUNKO - Confederación Vasca de Fundaciones y realizar la auditoría de las Cuentas Anuales del Ejercicio 2021.

▀ **Desviación total (Resultado):** Todo lo comentado anteriormente hace una desviación presupuestaria de 16.437 euros, siendo este importe el del Excedente del Ejercicio 2021



09 2021 jarduera programa

2021. ekitaldiko Jarduera-programa 2020ko abenduaren 21eko Patronatuaren bileran onartu zen, Fundazioa eratzea justifikatzen duten xedeekin bat etorriz eta Fundazioaren bosgarren jarduera-programan egindako jarduketei aurre egiteko behar adina funts zeudela irizita; hortaz, programaren bideragarritasuna bermatuta zegoen eta, hurrengo ekitaldietarako, jardueren jarraipena bermatuko duten aurrekontu-konpromisoak formalizatu dira

Programa horrek hiru jarduketa ardatz ditu, eta horietan hainbat jarduera barne hartzen dira:

1. Zeharkako jarduerak:
 - 1.1. KAI JAI - Bilboko Portuaren eguna
 - 1.2. Enpresan praktikak egiteko programa
2. Fundazioa osatzen duten bederatzi udalerrien ekimenez egindako jarduketak.
3. Berrikuntzarekin zerikusia duten jarduketak:
 - 3.1. Jasangarritasuna Cámarabilbao
 - 3.2. Deusto Cities Lab Katedra
 - 3.3. Bilbao PortLab

Programa de actuación 2021

El Programa de actuaciones del ejercicio 2021 se aprobó con fecha 21 de diciembre de 2020, en la reunión del Patronato, de acuerdo con los fines que justifican la constitución de la Fundación y bajo la consideración de que los fondos existentes resultaban suficientes para atender las actuaciones que se realizaron en el quinto programa de actuaciones de la Fundación, por lo que la viabilidad del mismo estaba garantizada y para los ejercicios siguientes se formalizarán los compromisos presupuestarios correspondientes que garanticen su continuidad.

Dicho Programa tiene tres ejes de actuación, en los que se integran las diferentes actividades:

1. Actuaciones transversales:
 - 1.1. KAI JAI - Día del Puerto de Bilbao
 - 1.2. Programa de prácticas en la empresa
2. Actuaciones realizadas a iniciativa de cada uno de los nueve municipios integrantes de la Fundación
3. Actuaciones relacionadas con la innovación
 - 3.1. Sostenibilidad Cámarabilbao
 - 3.2. Deusto Cities Lab Katedra
 - 3.3. Bilbao PortLab

10 Zeharkako jarduerak

Actuaciones transversales

10.1 Kai Jai - Bilboko Portuaren eguna

KAI JAI - Día del Puerto de Bilbao

Urteko jarduera hau 2015. urtean hasi zen, eta, hasieran, ibiltaria izatea eta ibaiertzeko hainbat udalerrik hartuko zutela pentsatu zen. 2015. urtean Bilbo izan zuen agertoki, eta hurrengo urtean Barakaldo, 2017an, erosotasuna, segurtasuna eta logistika oinarri hartuta, KAI JAI beti leku berean ospatzea erabaki zen, zehazki, Getxoko "Olatua" gurutzaontzien terminalean.

Formatu handiko jarduera da, jai-girokoa, eta xede du jendea Bilboko Portuaren eta haren inguruko udalerrien errealtatera hurbiltzea, baita gure eskualdekoari ez ezik, Euskal Herri osoko historiari, ekonomiari eta bizitzari ere egin duten ekarpena zabaltzea; betiere familia-aisialdi partekatua, balioetan oinarritutako hezkuntza eta jardura ludiko eta kulturala oinarri hartuta.

KAI JAI - Bilboko Portuaren Egunaren seigarren edizioa 10:30etik 14:30era ospatu zen, etenik gabe, urriaren 24an. Gutxi gorabehera, 3.000 pertsonak gozatu zuten prestatutako jolas eta doako jardura ugari. Batez ere adin txikikoei zuzendutakoak izan ziren - hainbat adin arte kontuan hartuta -, baina, era berean, guraso eta tutorentzat erakargarriak eta parte hartzaileak ere izan ziren, hala nola haur-antzerkia, ginkana pirata, polizia-txakurren erakustaldia, ipuin-kontalariak, simulagailuak, tailerrak edo photocall-a. Jarduera guztiak euskararen erabilera normalizatzeko eta genero-berdintasunaren printzipioen arabera garatu ziren.

Sarbidea errazteko, doako aparkaleku izateaz gain, antolatzaileek autobus-zerbitzua jarri zuten doan Neguriko metro-geltokitik eta Zubi Esekitik.

2021ean Fundazioak 58.685,00 euro jarri ditu KAI JAI - Bilboko Portuaren Eguna zeharkako jarduera egiteko.

Esta actividad anual se inició en 2015 y, en su origen, se pensó que fuera itinerante y la acogieran los diferentes municipios ribereños. En 2015 tuvo como escenario Bilbao, y al año siguiente Barakaldo. En el año 2017 se optó - por comodidad, seguridad y logística- por celebrar el KAI JAI siempre en el mismo lugar, concretamente en la Terminal de Cruceros "Olatua" de Getxo.

Se trata del diseño de una actividad de gran formato, festiva y que, tomando como base el ocio familiar compartido, la educación en valores y la actividad lúdica y cultural, sirviera para acercar al público a la realidad del Puerto de Bilbao y sus municipios ribereños, difundiendo su aportación a la historia, la economía y la vida, no sólo de nuestra comarca, sino de todo el País Vasco.

La sexta edición de KAI JAI - Día del Puerto de Bilbao se ha celebrado el 24 de octubre en horario ininterrumpido de 10.30 a 14.30 horas, con una asistencia estimada de 3.000 personas que han disfrutado de un gran número de juegos y actividades gratuitas, fundamentalmente dirigidas a menores de edad - teniendo en cuenta los distintos tramos de edad -, pero siendo igualmente atractivas y participativas para padres y tutores, tales como teatro infantil, yincana pirata, exhibición de perros policía, cuentacuentos, simuladores, talleres o photocall que se han desarrollado de acuerdo con los principios de normalización del uso del euskera y de equidad de género.

Para facilitar el acceso, además de disponer de aparcamiento libre, la organización ha dispuesto de un servicio gratuito de autobuses lanzadera desde la estación de metro de Neguri y desde el Puente Colgante.

El importe aportado por la Fundación para la realización de la actividad transversal KAI JAI - Día del Puerto de Bilbao en 2021 ha ascendido a la cantidad de 58.685,00 euros.

10.2 Enpresan praktikak egiteko programa

Programa de prácticas en empresa

Zazpigarren urtez jarraian, Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioak, patronatuko kideen arteko lankidetzaren baitan, “Enpresan Praktikak egiteko Programa” sustatu du. Praktika horiek Bilboko Portuko Agintaritzaren sailletako hainbat arlo funtzioaletan garatzen dira, eta lan-eskarmentua ematen diete unibertsitate-ikasketetan edo Goi Mailako Heziketa Zikloetan titulua duten gazteei; hain zuzen ere, amaitutako ikasketak dituzten 30 urtetik beherakoei, langabezia daudenei, haien prestakuntzarekin zerikusia duen esperientzia kualifikaturik ez dutenei eta aurretik lanbide-praktiketako beka bat izan ez dutenei. Novia Salcedo Fundazioak kudeatzen ditu mota horretako bekak, aipatutako baldintzen arabera.

Horiek guztiek Fundazioaren Patronatua osatzen duten bederatzi udalerrietako batean errolatuta egon behar dute (Bilbo, Erandio, Leioa, Getxo, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi eta Zierbena).

2020-2021 aldiko deialdirako 10 beka egin dira 2021eko urtarriletik ekainera bitartean, eta 2021-2022 deialdirako, 2021eko urritik abendura bitartean, beste 8 beka egin dira. Horiek guztiak Bilboko Portuko Agintaritzaren sailletako hainbat arlo funtzioaletan garatu dira, eta agintaritzak proiektuaren esku jarri ditu behar diren baliabide material, didaktiko eta tutoretza guztiak, praktikak behar bezala egiteko eta ikasle onuradunek hobeki aprobetxatzeko.

Praktika-programaren bekak arlo funtzional hauek garatu dira: Administrazioa eta Finantzak; Giza Baliabideak; Eraikuntza, Plangintza eta Proiektuak; Merkataritza eta Marketina; Laneko Arriskuen Prebentzioa eta Ingurumena; eta Lehiakortasuna eta Berrikuntza. Bekadun guztiak Fundazioaren Ibaiertzeko Udalerri Patronoetakoak dira, eta deitutako praktika-kopuruaren eta arlo funtzionalen arabera ari dira lanean.

Beka horien kostua 60.693,84 eurokoa izan da 2021eko ekitaldirako.

Por séptimo año consecutivo, la Fundación Puerto y Ría de Bilbao ha promovido, en el marco de la colaboración entre los miembros del patronato, un “Programa de Prácticas en Empresa” que se ha desarrollado en las áreas funcionales de los distintos departamentos de la Autoridad Portuaria de Bilbao. Estas prácticas brindan una primera experiencia laboral a jóvenes titulados/as en estudios universitarios o en Ciclos Formativos de Grado Superior, menores de 30 años con los estudios concluidos, en situación de desempleo, sin experiencia cualificada relacionada con su formación y sin haber disfrutado con anterioridad de una beca en prácticas profesionales, tal y como establecen los requisitos de la Fundación Novia Salcedo, que gestiona este tipo de becas.

Todos/as ellos/as deben estar empadronados en alguno de los nueve municipios que componen el patronato de la Fundación (Bilbao, Erandio, Leioa, Getxo, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi y Zierbena).

Para la convocatoria del periodo 2020-2021 se han realizado 10 becas entre enero y junio de 2021 y para la convocatoria 2021-2022, en el periodo de octubre a diciembre del 2021, se han realizado otras 8 becas. Todas ellas a desarrollar en las áreas funcionales de los distintos departamentos de la Autoridad Portuaria de Bilbao, que pone a disposición del proyecto todos los recursos materiales, didácticos y de tutoría necesarios para el correcto desarrollo de las prácticas y su mejor aprovechamiento por los alumnos y alumnas beneficiarios/as.

Las áreas funcionales en las que se han desarrollado las becas del programa de prácticas son las siguientes: Administración y Finanzas, Recursos Humanos, Construcción, Planificación y Proyectos, Comercial y Marketing, Prevención de Riesgos Laborales y Medio Ambiente y Competitividad e Innovación. Todas las personas becadas pertenecen a los Municipios Ribereños Patronos de la Fundación y están trabajando conforme al número de prácticas convocadas y las áreas funcionales relacionadas.

El coste de la realización de dichas becas para el ejercicio 2021 ha sido de 60.693,84 euros.





11 Ibaiertzeko udalerrri bakoitzean burututako jarduerak

Actividades realizadas en cada municipio ribereño

11.1 Barakaldoko Udala

Ayuntamiento de Barakaldo



PROIEKTUA
Itsasadarrean bisita gidatuak

PROYECTO
Visitas guiadas por la Ría

9.847,63



Itsasadarra Barakaldoko eta Ezkerralde osoko historian elementu dinamizatzaile gisa duen garrantzia ezagutarazteko, uztailaren 10ean, 17an eta 24an eta irailaren 4an, 11n, 18an eta 25ean Barakaldoko Udalak 10 bisita egin ditu itsasontzian Portuko dartsenatik, Abrara joateko eta, ondoren, Cadagua alderaino itzultzeko, itsas-bidaia abiatutako lekuan amai dadin.

2021ean, 133 pertsonak hartu dute parte bi orduko ibilbideetan. Horietan, informazioa eman eta argazkiak erakutsi dituzte, eta azaldu dituzte inguruko mineralaren kalitatea eta haren esportazio masiboa zein XIX. eta XX. mendeetan Bizkaiko eskualde horren historia markatu zuten fabrika eta konpainia nagusien bilakaera.

Jarduerak 9.847,63 euroko diru-laguntza jaso du.

Con el objetivo de dar a conocer la relevancia de la Ría como elemento dinamizador en la historia de Barakaldo y de toda Ezkerraldea, los días 10, 17 y 24 de julio y 4, 11, 18 y 25 de septiembre el Ayuntamiento de Barakaldo ha realizado un total de 10 visitas en barco por la Ría desde la dársena de Portu, para dirigirse hacia el Abra y volver posteriormente hasta la altura del Cadagua y retornar hasta el punto de partida.

En 2021, 133 personas han participado en estos trayectos de dos horas de duración durante los cuales se ha locutado información y mostrado fotografías explicando la calidad del mineral de la zona y su masiva exportación y la evolución de las principales fábricas y compañías que marcaron la historia de esta zona de Bizkaia en los siglos XIX y XX.

La actividad ha contado con una subvención de 9.847,63 euros.

11.2 Bilboko Udala

Ayuntamiento de Bilbao



PROIEKTUA
Zubitik Zubira Kantuan

PROYECTO
Cantando Puentes

9.900



2021eko irailaren 18an, Bilboko Koral Elkartek antolatutako ibilbide musikal eta ibaitarra egin da Itsasadarrean zehar. Bilboko Koral Elkarteko Euskeria gazte koruak eta Lauko taldeak aire zabaleko kontzertu partizipatiboa egin dute, agertoki flotatzaile bihurtutako ontzi batean.

